

ABESTI ITZAK

Xabier

TXORI BATEN ANTZERA

Txori baten antzera bizi nai nuke nik
Aske mundu onetan ta egoak zabalik
Kantari beti alai gorroto gabarik
Beste txori danakin elkar maitaturik.

Txoria orla dabil egalez pakean
Loreak dituela berakin alboan
Bañan ez da ibiltzen iñoren kaltean
Alare sartu dute kaiola batean.

Aske jaio dan aurra zergatikan lotu
Kaiolaren barruan txoritxo sartu
Jainkoak betirako aske zuan sortu
Bañan beraren naiak gizonak urratu.

Zabaldu kaiolari atea betiko
Txoria irten dedin andik betirako
Egalez lorez lore alai ibiltzeko
Jaio zan bezin aske beti bizitzeko.

Txori orren antzera bizi nai nuke nik...

ANIMATXOA (ERRUSIAR ABESTI BATETIK)

Zure illobian billa
nabillen ene maitea
Eta negarrez galdetzen nuben
¿Nun zaude animatxoa?

Arantz artean zegoen
bakardadean larrosa
Galdetu nion biotz barnetik
¿Zu al zera animatxoa?

Ostapean gordeta
urretxindor ixilla
Galdetu nion biotz gozoaz
¿Zu al zera animatxoa?

Txoriak egoak astinduz
lorea ikutuaz mokoaz
Antzika txioka egin zuben
esan balu bezela "NI NAIZ".

ZATOZ UDABERRIA

Elurrez betiak dagozte mendi ta zelaiak
txuri txuri egonik basoetan zugaitzak
negu jantziarekin estalirik guztiak.

Egun laburrak, gauak illun ta luzeak
janaririk gabe txori gaixoak goseak
negu itun onek danontzat ditu kalteak.

Aldendu negua zatoz udaberria gugana
eguzki beroak urtu mendietako elurra
ta bere margoekin jantzi berriro zelaia.

Udaberrien arnasak
bete liki gozoz loreak
Jana arkitu dezaten
berentzako txoriak
Jana arkitu dezaten
berentzako txoriak.

Txoritxo guztiak dei egiten dute UDABERRIA
Atorkizu bada laister zu zera gure pozgarria
Zure etorrerak dakar janaria
Izanik guretzat bizitza guztia.

Elurrez beteak dagozte mendi ta zelaiak
Txuri txuri egonik basoetan zugaitzak
Negu jantziarekin estalirik guztiak.

